

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

300 - 2022ko MARTXOA



# EMAKUME ZIENTZIALARIEN EGUNA ARAXES IKASTETXEAN

Beteluko eskolan, Bizikidetzaren Batzordeak proposatuta, otsailaren 11n Emakume Zientzialarien Eguna ospatu genuen, denon artean osatutako erakusketa batekin borobilduz.

Emakume zientzialariak landu ditugu, taldeka, bereziki ibarreko eta hurbileko zientzialariak: Beteluko Amagoia Telletxea eta Ainara Saralegi, Atalluko Idoia Urdanpileta eta Leitzako Naiara Perurena.

LH1-LH2 taldeak, gure gelako haur baten ama zientzialaria dela ikusirik, eskolara etortzeko gonbidapena egitea erabaki zuen. Baita etorri ere, zintzo asko! Guregana AINARA ESTANGA (Intza/Betelu) neuropsikologoa, neurozientzietan doktorea, etorri zen eta elkarrizketa egin genion.

Oso tarte goxoa bizi genuen. Bezperan galderak prestatu eta elkarrizketa egin genion. Ikasleak zintzo eta adi egon ziren. Bukatzeko, gure memoria aztertzeko ariketatxo bat ere egin zigun. Oso atsegina eta interesgarria izan zen! Aurpegi osoa ikusten ez bagenion ere (maskara baitzeraman) bere ahots goxoarekin asko ikasi genuen: gure eskola estreinatu zuela DBH ikasi zuenean; CITA-alzheimer Fundazioan, Donostian, lan egiten duela; adineko gaixotasunetan eta batez ere Alzheimerren ikerketa lanetan; bere lana izugarri gustukoa duela; bere lanean gehienak emakumeak direla; inguruko emakume zientzialariak ezagutzen dituela; pilak kargatu nahi dituenean, bere jaioterriko, Intzako txoko batera joaten dela; oso pozik bizi dela eta ez lukeela deus ere aldatuko bere bizimoduaz, etab.

Gora emakumeak eta gora emakume zientzialariak!



## MAILOPE

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astiz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkarteak. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzirik eta esaneren erantzukizunik. [issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hermandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK: Araxes eskola, Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, Jose Antonio Garaikoietxea, Jose Carlos Cordovilla, Nieves Lopetegui, Salto udalekuak, Agrozumos, Maria Angeles Urrizalki, Ilargi taberna, AEK, Igor de Castro.

· PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

· MAKETAZIOA: Mikel Urriza eta Oroitz Zabala.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT MULTIMEDIA

04 ▶ KUXKUXEAN Martxoko zorion agurrak.

04 ▶ IZAN GAZTE Kalamuak zure garunari eragiten dio.

08 ▶ ELKARRIZKETA



Nieves Lopetegui

14 ▶ BATZARRE Agrozumos eta Torrassapel enpresetako langileak greban

20 ▶ ERREPORTAJEA



Inauterietako melodiak eta dantzak galdu gabe.

20 ▶ KULTURA Apirilaren 5ean pasatuko da Korrika Larraundik eta Lekunberrietik.

23 ▶ KIROLA Ttutturre Elkarteak Toloñora egingen du irteera

24 ▶ ERREPORTAJETXOA Kolorez blaitutako inauteriak Lekunberrin.

28 ▶ PLAZATIK PLAZARA Ongizatearen eta bizi kalitatearen garrantziaz

31 ▶ AGENDA



**Mertxe eta Arturo**  
Mertxek 50 urte beteko ditu  
martxoaren 18an, eta Arturok 4  
urte martxoaren 27an.  
Zorionak bioi Atallutik!!!  
Urte askotarako!!!



**Zorionak Unai!**  
6 urte... ze haundie!  
Egun politte izan! Muxu erraldoi bat  
etxeko guztien partez!



**Lander Flores Eskamendi**  
Martxoaren 30ean 13  
urte beteko ditu gure  
txirrindulariak. Segi horrela  
ta aupa zu!! Zorionak aitatxo,  
amatxo, Naroa ta Ibairen  
partez.



**Zorionak Alain!!**  
Segi ezazu orain bezain alai  
eta saltsero. Egun berezi  
honetan ondo pasatzea  
espero dugu zure famili eta  
lagun guztiekin. Muxu pottolo  
bat!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren  
20a baino lehen.



**Jon Vicente Alkorta**  
Martxoaren 4an 9 urte.  
Zorionak, Jon!!!! Egun  
zoragarria izan dezazula  
familia eta lagunekin!!! Muxu  
haundi bat etxekoan partetik!!!



**Intza Etxarri Zubeldia**  
Martxoaren 30ean, 3 urte  
Zorionak eta urte askoan  
politte!! Muxu handi bat  
etxekoan partetik!!



**Jokin Mitxelorena  
Eskamendi**  
Martxoaren 3an, 8 urte  
Ongi pasa zure egunean.  
Muxu bat aitatxo, amatxo eta  
Manexen partez.



**Bittor Esnaola Sotil**  
Martxoaren 12an, 8 urte  
Zorionak, txapeldun!  
Beti bezain jator jarraitu eta  
zure egunaz asko gozatu!  
Maite zaitugu.  
Peru, atte



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com).



## ITURRIBURUKO ETXEETARAKO IRTENBIDE ESKE

Erruz egin du euria abenduan, eta euriteek ondorio nahiko larriak utzi dituzte. Besteak beste, Araiztik Tolosara doan errepidea moztuta geratu zen ibaiak gainezka egin zuelako; auto bat baino gehiago geratu ziren bidean ez aurrera, ez atzera, eta istripuren bat ere izan zen. Lekunberrin, Albisualdea kalea ere moztu egin behar izan zuten. Gainera, lur-jausi asko izan ziren.



## BIGARREN LIBURU AZOKA

Liburuak erosteko aukera paregabea egongo da martxoaren 13an Lekunberriko frontoiko plazan. Izan ere, bigarren liburu azoka antolatu dute, eta 10:00etatik 15:00etara egongo da zabalik. Bertan izango da Iker Uribe (autoedizioa) eta Abarzutza, Elkar, Iratxe eta El Bibliófilo liburu dendak.



## LARRAUNGO UDALAREN BULETINA

Larraungo Udalak buletina sortu du, herritarrekin komunikazioa hobetzeko helburuz. Urtero etxe guztietan banatuko dute, eta, besteak beste, alkateari egindako elkarrizketa bat, eta udalak abiatutako hainbat proiekturen eta ibarreko albiste ugari berri ematen du. Interneten ere irakur daiteke.

## ► Mikel Martirena (Uitzi)



Murrizketak behingoz kendu eta  
festarako gogo pila  
Atera ginen Jane, Clayton, Tarzan  
ta bizpahiru gorila  
Iñauterien hilabetea  
aurten gurean otsaila  
Honen ondoren martxo dator  
errebindikazio hila  
Egurra eman ezazu Olaia  
ez dadin eten gorpila

Hurrengoa: Olaia Soroa (Lekunberri)

## 5 BILERARIK EZ

1991tik 1995 bitartean, Iruñeko Udalean, zoritarrez, Alfredo Jaime Irujo jauna pairatu behar izan genuen alkatetzan, eta, gorago aipatu dudan Nafarroako Pertsona Gutxitu Fisikoen Elkarte Koordinakundeko kide batzuk, aspalditik ari ginen lortu nahian alkate jaun kaskarin harekin, bilera bat, gure problematika guztia berriz ere kontatu eta azaldu nahirik, konponbideak lortze aldera. Behin eta berriz egiten genizkion bilera eskaerak, baina bera tematuta zegoen ez emateko; inola ere ez zegoen modurik bilkurarik erdiesteko.

Gauzak hala zeudela, 1995ean, Juan Cruz Alli Aranguren jauna izan zen aukeratua Nafarroako lehendakari; azken hau, jatorragoa eta hobea. Baina, antza denez, ordurako, Alfredo Jaime eta Juan Cruz Alliren artean barne gatazka batzuk gertatuak omen ziren. Allik Jaimeri leporatua omen zion, hirigintzako gai batzuetan, ez zuela garbi eta aratz jokatu, eta, handik sortu omen ziren bien arteko tirabirak. Baina, bueno, guk, une hartan, horrelako barne istiluak batere jakin gabe ere, Juan Cruz Alli lehendakari berriari egin genion bilera eskaera, berari ere, gure kolektiboaren arazo eta oztopoak, xeheki eta zehaztasunez kontatzeko.

Juan Cruz Allik berehalaxe jarri zigun hitzordua, eta, inolako arazorik gabe, segituan hartu gintuen bere bulegoan, Koordinakundeko ordezkari batzuk. Bilera, normala eta adeitasunez bete izan zen, -a zer aldea Alfredo Jaimekin edukitako bilkurekin alderatuta!-; une oro modu abegikorrean tratatu gintuen eta aukera bikaina izan genuen geure eskaera eta errebindikazio guztiak egiteko. Baina bilera bere bukaerara iristen ari zenean, amaitu baino lehentxeago, Juan Cruz Allik zera esan zigun irribarre atseginez: <Bueno, ba, beste zerbait egin ahal baldin badut zuen alde, esadazue, oraintxe duzue-eta primerako aukera>. Orduan guk, elkarri begiratu, eta, uste dut denok izan genuela burutapen berbera, alegia, lehendakariari laguntza eskatzea, bilkura hitzordu bat lor ziezagun Alfredo Jaime desatseginarekin.

Eskaria egin bezain laster, <Lasai, hori egina dago!>, erantzun zigun, eta, jarraian, segundo bakar bat ere alferrik galdu gabe, telefonoa hartu, zenbaki bat markatu eta segituan hasi zen solasean Iruñeko alkate jaunarekin:

-Bai, Alfredo, begira, hementxe bertan ditiat, nire bulegoan, Gutxitu Fisikoen Elkarte Koordinakundeko ordezkari batzuk, Javier, Carmen,

Xanti eta abar; esan zidatek ez dutela modurik aurkitzen hirekin hitz egiteko. Horregatik deitu diat, bilera bat lehenbailehen eman diezaiean.

-... (baina, auskalo Alfredo Jaime zer birao hasiko ote zen botatzen gure aurka, telefonoz bestaldean, zeren eta kontua baita, Juan Cruz Allik berberak, berehalaxe, hona antzeko zerbait esan behar izan zion gure aurrean, eta, jakina, guk dena entzun egin genuen):

-Lasai, Alfredo, lasai!, ez hasi hemen gaizki esaka! ...bai, Xanti ere hemen zegok. ...barrabas hutsa dela? Ez diat uste; ez dik hala ematen. Tira, trankildu hadi, motel! Ez hadi sutu eta emaeik bilera bat oraintxe bertan!; agindua duk! -Halaxe bukatu zuen Juan Cruz Allik, Alfredo Jaime egoskorrekin izan zuen elkarrizketa atezu hura.

Azkenean, Alfredo Jaime setatsiak amore eman, eta, bere borondatearen aurka izan baldin bazen ere, ez zuen beste erremediorik eduki, bilera-hitzordua jarri baino; nonbait ez zen ausartu bere lehendakariari aurka egitera. Izan ere, gorago azaldu dudan bezalaxe, bolada hartan, bien arteko harremana ez omen zen oso goxoa, eta, aldi hartan ere, uste dut, arrunt nabarmen gelditu zela tirabira hura.

Bilkurarako hitzordua eman, eman zigun, eta, jakina, iritsi ere, eguna iritsi zen, baina Alfredo Jaimek, gu hartu bezain laster, azaldu zigun egundoko buruko mina zeukala, eta, segituan, gelatik atera behar izan zuen, analgesikoren bat hartzeko. Azkenean, bilera aurrera eraman genuen, baina ez gutxi kostata, eta, bukaeran, zalantza batekin gelditu ginen denok, alegia, buruko mina lehenagotik ote zeukan, ala, gu ikusitakoan jarri ote zitzaion. Erantzuna ez genuen inoiz jakin.

Dena den, handik aste batzuetara, EA Eusko Alkartasuna alderdi politikoko zinegotzi batek kontatuta, jakin nuen, Alfredo Jaime Irujo Iruñeko alkate jaun burugogor hark, ez ninduela ni neroni hartu nahi, HB Herri Batasunako transmisio uhala bezala ikusten omen ninduelako. Horratx, ba, zer den kontzeptuak eta betebeharrak nahastea!

Xanti Begiristain Madotz (Auritz).

## LARRAUN BAILARA, BIZITZEKO LEKU ONA

Lekunberrin bizitzea pribilegio bat dela esan genuen aurreko artikulua batean, Udalak, gizarte eta kultura eragileek nahiz auzokide orok, gure udalerriak gaur egun duen nazioarteko aintzatespena lortzeko, egiten duen ahalegina baloratzen dakigunontzat, eta hori herritarren arrakasta kolektiboa da.

Guretzat, Larraun bailarentzat ere bada errekonozimendu hori; izan ere, kanpoan nekez bereiz daitezke bi errealitateak: Lekunberri haran baten bihotza da, osotasun bat osatzen duten bi udal-erakunde ditu, bisitariarentzat zaila dena identifikatzen. Batzuetan desberdintasunak dituzten erakundeak, Nafarroako gainerako udalerrri eta kontzejuen antzekoak.

Edozein ezberdintasunen gainetik, Aralar mendilerroaren magalean dagoen eta ongi zaindutako 17 herri politex osatutako haran batera iristea gogoratzen dugu, landa tradizio handikoa, mendeetan nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi izan dena, baina gaur egun despopulazioa geldiarazteko eta berau osatzen duten herriak bizigarriago egiteko erronkari aurre egiten diona. Gazteek beren herriak utz ditzaten saihestea lehentasunezko zeregina da.

Atsegin handiz ikusi ditugu Larraungo Udalaren planak, despopulazioa geldiarazteko, hainbat eraikin eraberrituz landa-etxe bihurtzeko, Gabari Gunearen inaugurazioa, eta Larraun Bizi, Ondare eta beste hainbat erakunde sortzeak, berriz, harro egoteko moduko natura-ondarea zaintzen du, eta haraneko bizitza soziala eta kulturala dinamizatzen du, gure hizkuntza maite dugunok aintzat hartzeko moduko ingurune euskaldun batean.

Elkarlan mankomunatu egiaztatu genuen, batzuetan zaila bailaran, hainbat arloren kudeaketarako, hala nola Mitxausenea Kultur Etxea, Kirol Mankomunitatea, Plazaolako Partzuergo Turistikoa, Euskara Zerbitzua, Musika Eskola, Eguneko Zentroa, Kirol Zentroa, Eskola, Haur Eskola, Osasun Zentroa, Mendukiloko kobazuloak eta abar, eta adin eta mota guztietarako ekimen eta proiektu guztiak ikusten

ditugunean, gizarte bizi bat aurkitzen dugu, gogo eta ideia berriak dituen.

2.500 biztanle inguruko bailara horrek une egokiak bizi ditu ingurumenarekin, turismoarekin eta kulturajarduerarekin zerikusia duten proiektuak gauzatzeko, eta, beti, proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak garatzen ditu. Lekunberriko edo, gauza bera dena, Larraungo nazioarteko errekonozimenduaren tirakada aprobetxatzeko unea da, gure asmo komunetan aurrerapausoa emateko.

Ziur gure udal agintariak ideiak eta gogoak dituztela, baina aurrerapauso bat ematera animatu nahi ditugu, batez ere kulturaren arloan dauden gabezia batzuk betetzeko. Mitxauseneako espazioa optimizatuta daukagu eta hitzaldi eta kontzertuen antolaketan mugitzen garen Larraungo haraneko erakunde ezberdinak, gure beharren neurria egindako auditorio edo areto baten falta sumatzen dugu. Iruditzen zaigu Gabari Guneak funtzio ona betetzen duela, baina ez dituela dauden behar guztiak betetzen, eta Antoneari (Astiz Irujo Fundazioarena) begiratzen badiogu, ikusiko dugu erakunde pribatua dela, eta gaur egungo errealitateak ez digu uzten aipatutako helburuetarako erabiltzen.

Ezin dugu beti "txikira jokatu". Lekunberriko eta Larraungo Udalen arteko akordio bat behar dugu, hitzarmen baten bidez, partekatutako zerbitzu eta azpiegituren kudeaketa mankomunatuaren gakoak jasoko dituen, baita epe labur,ertain eta luzerako beharrezko inbertsioak ere, Nafarroako Gobernuaren ezinbesteko laguntzarekin egin ahal izango direnak. Horrela, Espazio eszeniko/diziplina anitzeko baten proiektua amaituko litzateke, ibarrean gaur egun ikusten ditugun gabeziak betetzeko eta aurrera eraman daitezkeen etorkizuneko proiektu kultural eta turistikoak garatzeko, paregabea den, Larraungo bailaran.

Koldo Monreal Lafuente, Jose Angel Huizi Perurena, Iñigo Garcia Cuellar eta Sabin Atxalandabaso Barandika.

**NEKAZARI, S.L.**  
Kubota  
STIHL  
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisi@hotmail.com

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaumartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com

Hostal Betelu

Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta pizza  
goxoak

Etorri eta  
on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU BAR**  
ETXKO PIZZAK,  
KOPA BEROZIAK  
948504352

**ALIPROX**  
Lekunberri  
janaridenda

hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

**CONSTRUCCIONES**  
ERAIKUNTZAK  
CONSTRUCCIONES  
URANGA/SAIGÓS. S.L.

TEILATUAK  
FATXADAK  
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA  
665 708 683  
Lekunberri

## OTSAILAK 13 : EUSKAL HERRIKO TORTURAREN AURKAKO EGUNA

SORTUK torturaren errealitate iluna argitara atera eta airtortza, erreparazioa eta ez erreparatzeko bermeak aldarrikatzeko Euskal Herrian ekimenak burutu ditu otsailaren 13ko Torturaren Aurkako Egunaren testuinguruan. Gure herriaren irudimenean beltzez irudikatzen dugun data da otsailaren 13koa; 41 urte igaro baitira Joxe Arregi Izagirre zizurkildarra tortura basatiak jasan ondoren Espainiako poliziak erail zuenetik.

Larraunen, azken urteetan bezala, elkarretaratzeko bat burutu genuen Lekunberriko Herriko Enparantzan eta modu horretan, milaka herritarrek jasandako oinazea nabarmentzearekin batera, tortura zuzitzen jarraitzen dutenen inpunitatea salatu dugu.

SORTUtik gogoratu nahi dugu egindako ikerketa ezberdinen ondorioz 5.657 euskal herritarrek igaro behar izan dutela torturaren atzapar krudeletik. Horietatik 4 larraundar edo 3 araitzar. Tamalez arduradun politikoez ezer gutxi egin dutela eragindako kaltea aitortzeko. Honekin batera baloreen jarri nahi dugu otsailean Berriozarren sortu den "Nafarroako Torturatuen Elkarte". Elkarte honek emandako datuen arabera, Nafarroan mila tortura kasu inguru zenbatu zituzten 1960 eta 2014 artean. Eta Foru Gobernuari eskatu diote ikerketa ofizial, zientifiko eta independentea abiatzeko.

SORTUtik uste dugu torturaren egia argitara eramatea behar beharrezkoa dugula, milaka torturatuek merezi duten airtortza erreparazioa eta ez erreparatzeko bermeekin batera, herri honek bake eta askatasun agertoki berri batera aurrera egin dezan.

Larraungo Sortu



## Kalamuak zure garunari eragiten dio

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak

Osasun Departamentuak kannabisaren inguruko kanpaina bat abiatu zuen, Kalamuak zure garunari eragiten dio. Ongi pentsatu duzu? lelopean. Modu horretan, biztanleria gazteari zein helduari proposatu nahi dio kannabisaren kontsumoaren normalizazio sozialari buruzko hausnarketak egiteko; batez ere, adingabeen eta gazteen osasunean dituen arriskuak gogorarazten ditu. "Kannabisa zerbait naturala eta kaltegabea bezala ikusten eta kontsumitzen da, baina, errealitatea beste bat da: droga ilegala da, eta osasunerako arriskuak ditu".

Estatu mailan, urtero egiten den kontsumoen inguruko Estudes inkestaren azken datuen arabera, kannabisaren presentzia eta kontsumo moa normalizatu egin dira, eta Nafarroan, kontsumoak gora egin du azken urte hauetan, gutxi bada ere. Estatu mailako datuekin alderatuz gero, datuak altuxeagoak dira.

Esan ohi da kannabisa nerabeen garunaren etsairik okerrean izan daitekeela. Arrazoiak? Kannabisak eragin handiagoa du nerabeengan helduengan baino, haien garuna prestakun-



saren kontsumoa gure gizartearen zabaldua eta normalizatua egon, arriskuak hor daudela beti presente izan.

Behar-beharrezkoa ikusten dugu kontsumoaren inguruan eztabaida soziala sustatzea. Batzuetan, helduek kontsumoa banalizatzen dute, eta horrek kontraesanak sortzen ditu nerabeengan, eta arriskuak hartzerantz bultzatzen ditu. Batetik, legalizazioaren aldeko mugimenduak, eta, bestetik, terapeutiko arloan erabiltzearen onurak guztiz nahasten dituzte nerabeek. Askok uste dute legala dela, eta haren erabilerak ez duela inongo isunik, ezta osasunerako eraginik ere. Beste faktore bat: landare bat denez, naturala denez, uste ohi da ez duela izango inongo arriskurik. Naturala da, bai, landarea ere, baina landare horren osagaiak, THC izenekoak, efektuak eragiten ditu, eta droga baten ezaugarri guztiak betetzen ditu.

tza betean baitago, eta ez delako 22 urte bete arte garatuko. Azken ikerketen arabera, garai horretan nerabeak bereziki kalteberak dira kannabisaren ondorioetarako. Nahiz eta epe motzean nolabaiteko euforia sortu, ohikoa da kannabisarekin kontzentrazioan, memorian, pentsamenduan eta arretan ondorioak izatea.

Antsietatea eta interes falta ere sor dezake ikasketetan eta harremanetan, eta ohiko kontsumoa bada, adikzio arriskua ere badago.

Azaldutako guztiagatik, adi egon behar dugu, eta nahiz eta kannabi-

Prebentzio aldetik, beraz, bidali behar dugun mezua sendoa da: porroen kontsumo goiztiarrak sortzen dituen arriskuez kontziente izan behar gara.

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologia
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainetan
- Mikroblading bekainetan

**AURRERA TABERNA**  
ARALAR, 15  
948 60 47 24

**Iñigo Garaioa MARGOLARIA**  
696 658 288  
LEKUNBERRI

**TAXI SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**German Lasarte HARATEGIA**  
Aralar kalea 8  
Lekunberri  
9485 1157

**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32

**GALBURU**  
okindegia - panaderia  
Egur-labara egina!

Alde Zaharr 150  
LEKUNBERRI  
948 50 40 42

# “Asteburu batzuetan ehun oilasko saltzen genituen!”

**Nievesenea izenez da ezaguna Arriben dagoen janari denda; Nieves Lopetegi Martirikorenari zor dio izen hori, hark ireki baitzuen lehenengoz, orain dela 64 urte. Dendaren atzeko aldean, inguruan bizi ziren gizonak elkartzten ziren, jateko, ardoa edateko eta musean aritzeko, besteak beste.**

## **Etxe honetan eman duzu bizitza guztia?**

Arriben, bai, baina etxe honetan, ez. Gu Perraia etxeko maizterrak ginen, eta senide guztiak hor jaiok gara. Sei anai-arreba ginen, eta ni bosgarrena nintzen. Hiru gazteenak bizi gara oraindik.

## **Itxura ederra daukazu 91 urte izateko.**

Bueno, baditut nire gauzak; diabetikoa naiz, eta hori arriskutsua da. Giltzurrunak pixka bat izorratuta dauzkat horregatik. Bihotzeko bat ere izan nuen...

## **“Ignacio senarrak eramaten zituen enkarguak etxeetara, larunbatetan eta asteazkenetan”**

### **Baina ongi zaude, ezta?**

Ez naiz geldirik egoten! Arratsaldean denbora asko pasatzen dut eserita, baina goiz guztian zerbaite egiten aritzen naiz: bazkaria jarri semearentzat eta niretzat... 13:30 aldera bazkaltzen dut, ondoren siestara joaten naiz, eguerdirako nekatu egiten bainaiz, gero siestatik jaiki eta nire seme Joxe Mari etortzen da, 15:30 aldera, eta bazkaria zerbitzatzen diot.

## **Nievesenea esaten diote zure etxe azpiko janari dendari, baina zer zegoen denda baino lehen?**

Hor botika izan zen. Lehen terraza hori ez zen, guk egin genuen. Nire gizonak pentsua ibiltzen zuen, eta tokia behar genuen. Terraza itsusia da, baina beharra genuen. Oraingo etxearen atetik denda den horra dena jardina zuen, eta palmera bat zen erdi-erdian. Obra egitean pentsatu genuen palmera dendaren erdian utziko ote genuen! Pena eman zigun, baina kendu egin behar izan genuen. Oraingo dendaren atzeko aldean zen lehen botika. Botikaria bizi zen hemen, etxe honetan.

## **Botika itxi eta dendaren obrak egin zenituzten?**

Denbora askoan egon zen. Idazkaria ere egon zen, ibarreko sekretarioa, oraingo udaletxearen ordezkari hartan zegoena. Ramon Artaguren izena zuen

sekretarioak. Gero guk erosi genuenean deus ez zegoen, saguak bakarrik! Eta zumarrak; hemen bi zumar ziren, eta tartetatik gora ateratzen ziren.

## **Noiz etorri zineten senarra eta biek hona?**

Ezkundu ginenean etorri ginen; ezkondu aurretik erosi genuen. Obra pixka bat egin, denda jarri... tabernarik ez da inoiz izan, baina tabernaren zerbitzu asko egin du!

## **Txoko moduko bat zen?**

Mahai bat zegoen. Nik lehenbizi Berazaren etxean eduki nuen denda. Ezkontzekoak ginen, eta jai eguerdi batean, osaba baten zain nengoen dendan. Atalloorara joaten ziren mezaren ondoren; lehen han bazen taberna bat, baina emakume hori hil eta Atalloorara joaten ziren hamaiketako egitera. Jaiean biok joaten ginen etxera. Harekin etxera joateko zain nengoela, Erreroa, oraingoaren aitona, Martin Jose, terreno batetik heldu zen, Txanponzulo uste dut esan zidala izena zuela. Eguraldi beroa zen, primadera, baina hego haizea, zakarra. Bero-bero eginda etorri zen, eta gurekin hizketan geratu zen, bi edo hiru lagun baikinen dendaren atean. Eta esan zidan: “Ai, oraintxe baso bat ardo edango nuke ba, Nieves. Hor edukiko duzu, fresko samar”. Etxeetara eramateko edukitzen genuen ardoa. “Gizona, emango dizut baso bat!”. Eta baso bat eman nion. Osaba etorri zen, eta ez dakit berak ere ez ote zuen edan! Hola gehiagotan ibili ziren, eta tabernarik ez zegoenez, ba, bueno, dendara etortzen hasi ziren. Hiru edo lau lagun, asko ez ziren etortzen. Botikeroa ere



Maria Luisa eta Carmen, Nievesen koinatak. Arg: Nieves Lopetegi

etortzen zen batzuetan ardoa edatera.

## **Zuk ardoa eman eta hortxe egoten ziren?**

Dendan niri ez zitzaidan batere gustatzen. Gero beste hori erosi, obra egin, denda jarri, eta hona etorri ginenean esan nien nahi bazuten ardoa emango niela, baina atzeko aldean. Ez dakit asko gustatu ote zitzaie! Baina ez zeukaten beste erremediorik! Bestela ez nien emango. Hor hasi ziren, gero egun batean hamaiketako egin zuten, txorizo pixka bat eta ardoa, gero afariren bat, eta sua ere erosi zuten, kozinatzeke. Pako harakina haragia ekartzera etortzen zen, eta horra joaten hasi zen.

## **Baziren faltatzen ez zirenak?**

Don Carlos medikua bai! Aldamenekoak etortzen ziren, Queseroa esaten genion Joxe, okindegian bizi izan zena...

## **Denak gizonak?**

Bai, normalean bai. Emakumeok pixka bat hasi ginen tabernara joaten, baina gazte denboran



Aristi eta Queseroa, txekor buru bat jaten, denda atzean. Arg: Nieves Lopetegi

**“Denetatik saltzen nuen: jostorrazak, kuleroak, kamisetak, kaltzontziloak, painueloak...”**



Nieves Lopetegi eta bere ahizpa Maria Teresa. Arg: Labrit



Denda atzean bertan berotzen zuten janaria. Arg: Nieves Lopetegui



Gizonak musean aritzen ziren jan eta gero. Arg: Nieves Lopetegui

tabernara sartzerik ez genuen. Gero Beteluko Txokoan kafesnea edo txokolatea hartzen genuen, goiko jantokian.

#### **Alkoholik ez?**

Kafesnea edo txokolatea nahiago genuen. Jantokian eseri eta ederki egoten ginen.

#### **Gizonak atzeko aldean zeuden bitartean, zu saltzen?**

Hara eta hona ibiltzen nintzen, gauzak hartzen. Jaten aritzen ziren, eta saguentzako benenoa atzean! Apala genuen dendaren atzeko aldean, eta apaletan edukitzen genituen gauzak. Hor ibiltzen nintzen gizonak amorrarazten, baina ez zitzaidan batere inporta! Ni nire etxean nengoen. Ez nien kasurik egiten!

Tarteka purrustiren bat egingo nien segur aski. Baina ez, ez nintzen hor sartzen. Bueno, gero lanak bukatzen nituenean zeozer jateko behar banuen, jaten nuen, e!

#### **Nondik ekartzen zenuen ardoa?**

Leza izena zuen, Errioxatik, Arabatik. Botilak izaten genituen. Lehenago barriketan izaten genuen, dena upelekotik saltzen baikenuen: ardoa, anisa, moskatel... Olioia ere makina batekin egiten genuen, dena upeletik. Bidoia hustu, bueltak eman...

#### **Eta jatekoa?**

Beraiek ekartzen zuten, ni ez nintzen hor aritzen. Ardoa gizonak ibiltzen zuen, bera moldatzen zen. Arraina ere ekartzen zuten!

#### **Noiz elkartzen ziren?**

Eguerdian eta gauean, beti jendea bazen! Asteburuan ere bai, jai goizean ere irekitzen bainuen denda. Lan asko egiten nuen. Hiru ume nituen gainera. Gizona lehen esne saltzailea zen, Suitzoarentzat. Hura akabatu zenean, pentsua eta dendako gauzak eramaten hasi zen. Lehen jendea ez zen orain bezala ateratzen; autorik ere ez zen. Jendeak dendara deitu, enkarguak egin, kaxatan jarri, eta Ignacio senarrak eramaten zituen enkarguak, larunbatetan eta asteazkenetan. Jendea kalera atera, janaria partitu eta kobratu egiten zuen. Askok ez zuten momentuan pagatzen! Txekorra saltzen zutenean edo esnea kobratzen zutenean pagatzen zuten, dirua zeukatenean. Hola bizi ginen.

#### **Nolakoa zen dendari lana?**

Maria Luisa koinata asko egoten zen dendan, eta asko gustatzen zitzaion. Gaztetan Donostiako arrandegi batean lan egin zuen urte askoan, jendaurrean egotea gustatzen zitzaion, eta asko lagundu zidan, asko. Udan gaueko 22:00etan irekita genuen oraindik, eta eguraldia luzatzen zenean

eta ordua kanbiatzen zenean... egun horretan gaizkituta egoten nintzen! Ez zen arratsalde pasatzen. Jendea orain baino gehiago ibiltzen zen belarrean; eguzkia zegoen bitartean, belarrean, eta eguzkia itzaltzean, etxera. Askotan afaltzeko erosketak egitera, Nievesen dendara!

#### **Zer saltzen zenuen?**

Denetatik! Jostorrazak, kuleroak, kamisetak, galtzontzilloak, pañeluak...

#### **Zenbat urterekin ezkondu zinen?**

Ni dendan hasi nintzen 26-27 urte-edo nituela.

#### **Eta noiz jubilatu zinen?**

65 urte konplututa. Intzako Carmenek hartu zuen denda ni jubilatu nintzenean, eta hark pasatu zion Mari Tereri.

#### **Hainbeste ordu dendan, harreman handia izango zenuen ingurukoekin.**

Ez nuen jendearekin egoteko betarik! Lan asko izaten genuen. Orduan oso diferentea zen. Garai hau baino lehenago, babak-eta etxean hasten zirenean, txerria ere hiltzen zen, eta salmenta asko jaisten zen, pila bat! Belarrean hasten zirenean berriz hasten zen lana. Udan ikaragarri saltzen genuen!

#### **Zer saltzen zen gehien?**

Janaria: fruta, txokolatea, latak tomatea, freskoa zegoenean freskoa... Haragia Pakok ekartzen zidan, xerrak eta. Oilaskoa ere asko saltzen zen. Jendeak utzi zion etxean hiltzeari. Oilaskoa lehenbizi Tolosatik ekartzen genuen, hemen ez zegoen. Gero Oikina hasi zen kamioiarekin asteen bi aldiz noski, eta hari hartzen genion. Asteburu batzuetan hamar kaxa oilasko saltzen genituen: ehun oilasko!

#### **Zu jubilatu arte elkartzen zen jendea dendaostean?**

Bai. Nik denda utzi behar nuen, eta



Nieves eta bere ahizpa argazki zaharrak begiratzen. Arg: Labrit

ez nekien etxekoren batek segitu nahiko zuen edo ez zuen. Obra pixka bat egin behar izan genuen. Errentan utzi behar nuenean esan nien han ezin zitekeela egon.

Eta hona etortzen hasi ziren, etxe azpira, *zuloa* esaten zioten leku hartara. Lehen pentsua edukitzen genuen. Ez zitzaien batere gustatu! Dena atzeladeko mahaia hor jarri eta hortxe egoten ziren, igual-igual. Batzuk hiltzen joan ziren, eta gutxi baina berriak etortzen hasi ziren, Julian Elordi eta Xabi kazetaria adibidez, gasolindegikoa. Txinoetara jokatzera etortzen ziren. Ni gora etortzen nintzen, afora jartzera, eta hemendik ohartzen nintzen nire gizonak galtzen zutenean: a ze builak!

Ignacio bi egunean hil zen, eta orduan dena akabatu zen. Orain Koldo Garaikoetxea, Soroa eta Joxe Mari egoten dira batzuetan.

#### **Eta zu?**

Udan baratzean-edo aritzen nintzenean sartu eta Joxe Mariren garagardotik pixka bat edaten nuen. Garagardoa ez zait asko gustatzen, eta ardoa ezer jan gabe ere ez. Ardoa gustatzen zait, e! Ardozalea naiz. Nik eguerdian eta gauean beti edaten dut ardo pixka bat, gutxi! Normalean ardoa bakarrik, baina egarria baldin badaukat, urardoa.

*“Gazte denboran tabernara sartzerik ez genuen”*

*“Ardozalea naiz. Nik eguerdian eta gauean beti edaten dut ardo pixka bat”.*



### SALTO!, UDALERRI EUSKALDUNETAKO GAZTEEN TOPAKETAK

UEMAk, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, Salto! udalerri euskaldunetako gazteentzako udalekua antolatuko du bosgarren urtez, eta izena emateko epea zabalik dago jada. Ekainaren 27tik uztailaren 3ra egingo dituzte. Aurten, bi zutabetan antolatu dituzte: bat Tolosatik abiatuko da, eta bestea, berriz, Etxarri Aranaztik. Leitza izango dute helmuga. 2004 eta 2007 urteen artean jaiotako gazteei zuzenduta dago. Informazio gehiago: 943- 81 66 99 zenbakira deituta edota [www.uema.eus](http://www.uema.eus) webgunean.



### AGROZUMOS ETA TORRASPAPEL ENPRESETAKO LANGILEAK, GREBAN

Lekunberriko Agrozumos enpresako langileek lau greba egun egin zituzten otsailan, hitzarmena hobetzeko eskatu baitzioten enpresari. Azkenean, gehiengo osoz berretsi zuten aurreakordioa; horren bidez, soldata hobetzea, lanaldia murriztea eta malgutasun arazoak konpontzea lortu dute. Bestalde, Leitzako Sarriopapel enpresako langileek greba mugagabeari ekin zioten otsailaren 23an, lan hitzarmenaren negoziazioak desblokeatzeko. Hainbat mobilizazio egiten ari dira Leitza.



### SAGARDOARI BURUZKO IKASTAROA

Gure inguruan sagarrondoekin dagoen harremana dela eta, Cederna Garalurrek lau saioko ikastaro bat jarri du martxan. Ostiraletakoak saio teorikoak izanen dira, eta larunbatetakoak, berriz, praktikoak. Hauek izanen dira gaiak eta datak: martxoaren 11n eta 12an, sagarrondoan inausketa; apirilaren 8an eta 9an, osasun kudeaketa; ekainaren 10ean eta 11n, mahaiko sagarra eta sagardo; eta irailaren 30ean eta urriaren 1ean, uzta eta uzta ondo. Izen ematea: 948- 01 30 58.



### ENERGIA GUZTIA KOMUNITATEAREKIN BAT EGIN DU LEKUNBERRIK

Lekunberrik *Toda Energía (Energia Guztia)* izeneko energia komunitatearekin bat egin du, eta, hala, Ministerioaren Europatik datozen laguntza deialdian parte hartu ahal izango du. Energia komunitateak parte hartze irekiko erakunde juridikoak dira, jatorri berriztagarriko beren energia ekoizti, banatu eta biltegiatzea bilatzen dutenak, eta herritarrak, enpresa txiki etaertainak, eta tokiko erakundeak funtsezko eragileak dira horietan.

### PENISCOLARA JOATEKO BIDAIA

Lekunberriko jubilatuen elkarteak Peniscolara joateko bidaia bat antolatu du. Maiatzaren 16tik 25era joanen dira, hondartzatik gertu dagoen hotel batera, 547 euro ordainduta —gastu guztiak barne—. Interesa izanez gero, deitu 660 21 00 78 telefono zenbakira.



### MAILOPEREN BATZAR OROKORRA, APIRILAREN 1EAN

Mailoperen Batzar Orokorra egingen dugu apirilaren 1ean, 19:00etan, Larraungo udaletxeko Gabari gunean. Bertan, orain arte egindakoak eta aurrerantzean egingen ditugunak landuko ditugu. Ibarreko herritar guztiei zuzenduta dago. Animatu eta etorri parte hartzera, denen iritzia eta ekarpenak baitira ongi etorriak eta beharrezkoak lanean jarraitzeko!





# Inauterietako melodiak eta dantzak galdu gabe

*Karrika dantza egiten dute Beteluko inauterietan, goizeko puska biltzean. XX. mende hasieratik behintzat herrian dantzatu izan den dantza bat da, baina, inauterietan batera, bertan behera geratu izan da askotan. 2011tik urtero dantzatu dute beteluarrek, eta ohitura hori eusteko lanean ari dira oraindik. Ortzadar elkarteak dantza hori eta beste hainbat bildu ditu Nafarroako Dantzen Atlasan.*



Pako Urrizalki, Kaxiano eta Lorenzo Zubillaga. Arg. Maria Angeles Urrizalki

Ailegatzean: "Etxeko andre zabala/ leku oneko alaba/ bidean gatz informaturik/ limosnerua zerala". Alde egitean: "Orain bagoaz hemendik/ limosna ederra harturik/ etxe hontako etxeko andre/ ez gera egongo ahazturik". Kopla horiek kantatuz egiten zuten puska biltzea Betelun inauterietako azken egunean: etxez etxe kantatzen joaten ziren, eta etxe bakoitzean jatekoa eta edatekoa ematen zieten. Puska biltzea egin eta gero, dantzatu ere egiten zuten: herritarrek karrika dantza esaten diotena, hain zuzen. Denak ilaran jarrita joaten ziren herrian zehar, zapi bana eskutan harturik, danbolin eta txistu doinuaz alaituta. XX. mende hasieratik behintzat dantzatu izan dute Betelun karrika dantza, baina garaia araberaren ohitura hori galdu eta berreskuratu egin izan dute herrian, 1936ko gerra tarteko, besteak beste. Gaur egun ere egiten dute, inauteri egunean, larunbat goizez. Aurten, martxoaren 5ean dantzatuko dute beteluarrek beste urte batez, egun horretantxe ospatuko baitituzte inauteriak.

Lau zatik osatzen dute karrika dantza: hasteko, kalean aurrera egiteko, oinarrizko pauso bat egiten dute, nahiko erritmo mantsoan; gero, ilarako aurrenekoak eta azkenekoak zortzikoa deritzon dantza egiten dute, eta *maiordomo* esaten zaie bi dantzari horiei; zortzikoaren ondoren, zubiak egiten dituzte zapiak erabilia; eta, bukatzeko, fandangoa, porrusalda eta kalejira egiten dituzte denek. Gaur egun, baina, karrika dantza ez dute puska biltzea osoan egiten, momentu batean baizik.

*Resurreccion Maria Azkuek dantza horren melodia bildu zuen 1918 eta 1921 urteen artean*

Garai gorabeheratsuak bizitu izan ditu Beteluko karrika dantzak. Ez dakite zehazki noiztik dantzatu izan den herrian, baina jakina da, adibidez, Resurreccion Maria Azkue musikari eta idazle bizkaitarrak dantza horren melodia bildu zuela 1918 eta 1921 urteen artean, eta *Cacionero Popular Vasco* izeneko liburuan argitaratu zuen Betelun jotzen zutela doinu hori; *karrika dantza* bezala izendatu zuen gainera. Aita Donostia idazle eta musikologoak ere melodia bera argitaratu zuen 1930. urtean *Gure Herrian* aldizkarian, baina Orreagan entzun zuen. Gainera, azken horrek *Dantza Luze* izena ematen dio. Betelu da, hain zuzen ere, *karrika dantza* izena bizirik mantendu duen herri bakarra, Gipuzkoako eta Nafarroako herri batzuetan beste izen bat baitu.

## Inauterien debekua

1936ko gerra garaian, inauteriak debekatu egin zituzten, eta, ondorioz, karrika dantza bera ere ezin zuten egin. Garai horretantxe izango zuen karrika dantzak segur aski ete-naldirik esanguratsuen. Baina herritarrek ez zuten amore eman, eta jakina da gerraostean 1960. urtera arte behintzat dantzatu izan zutela karrika dantza herrian, 1972an *Diario de Navarra* egunkarian argitaratutako albiste batean irakur daitekeenez: "Gure txistulari honek —Pako Urrizalkiri buruz ari da— herriko dantza zahar guztiak dakizkit, batez ere antzara jokoa eta karrika dantza [...] Karrika dantza, berriz, askotan egin dute, baita 50 bikoterekin atera ere. Dantza hori inauterietako bigarren



Mila Pereda, Aitor Goikoetxea eta Maria Angeles Urrizalki. Arg. Labrit



Karrika dantza Beteluko plazan, 1980. urte inguruan. Arg. Maria Angeles Urrizalki

egunean egiten zen. Karrika dantza azken aldiz orain dela hamabi urte egin zen. Ohiturari utzi diote".

Maria Angeles Urrizalki beteluarren aita da Pako Urrizalki. Maria Angelesek ere txikitatik izan du lotura estua folkloarekin, eta, aitak bezalaxe, berak ere txistua jotzen du. Gogoan du 1980ko hamarkadan behintzat nola hasi ziren Pako eta herriko beste batzuk karrika dantza berreskuratu nahian. Izan ere, Maria Angelesek azaldu duenez, garai hartan Aurorako eta inauteriak berreskuratzeko helburuz elkartzen hasi ziren hainbat herritar, eta horrela lortu zuten karrika dantza ere bueltatzea. "Nire aitak kontatzen zuenez, karrika

dantza jende ilara bat zen, eta zapi batez lotuta joaten ziren. Ilarako aurrenekoak izan behar ziren aita eta alaba, arreba eta neba, osaba eta iloba... familiakoak jarri behar ziren bata bestearen ondoan".

Ipiarrea etxeke Lorenzo Zubillaga eta haren alaba Arantxa Zubillaga ikus daitezke ilararen hasieran Maria Angelesek erakutsitako argazki batean. Haien atzetik, Maria Angeles bera. Aitor Goikoetxea beteluarrek gogoratzen du osaba Lorenzo haren etxera joaten zela anai-arrebei dantza erakustera: "Nik 5-6 urte nituela, akordetzen naiz Lontxo Azkonegia gure etxera etortzen zela nire anai-arreba Javier eta Maria Jesusi dantza



Beteluko inauteriak, 1980. urte inguruan, plazan. Arg: Maria Angeles Urrizalki

**Gaur egun inauteri egunean dantzaten dute, larunbat goizez**

**Betelu da 'Karrika dantza' izena bizirik mantendu duen herri bakarra**

erakustera; etxeko sarreran aritzen ziren entseatzen". Izan ere, Zubillagak, dantzatzeaz gain, danbolina ere jotzen zuen.

Mila Peredak ere oso gertutik bizi izan du beti dantza hori, haren ama ere izan baitzen karrika dantza berreskuratzen saiatu zirenetako bat: "Nire ama Artosia etxera joan zen, eta hango Pakorekin batera lortu zuen karrika dantzaren pausoak berreskuratzea". Milak berak eta bere ama Milagros Altzugaraiak Astunalde dan-

tza taldea sortu zuten 1986. urte inguruan, eta berez Betelukoak ziren ingurutxoak eta karrika dantza berreskuratu zituzten berriro ere, Pako Urrizalkik eta herriko beste hainbatek egindako saiakeraren ondoren.

### 2011tik etenik gabe

Baina 1981etik ez dira urtero ospatu inauteriak Betelun. Azken boladarik egonkorrena 2010ean hasi zen, urte hartatik gaur egun arte urtero ospatu baitituzte. Halere, 2010ean bertan ez zuten karrika dantza egin. "Nahiko lan genuen inauteriak antolatzen", gogoratu du Aitor Goikoetxeak. Besteak beste, Garbiñe Sasiain, Aitziber Otamendi, Oihane Otamendi, Mirentxu Eskamendi, Yolanda Eskamendi, Joseba Eskamendi, Maria Sotil, Ander Arraztio, Joxe Zubillaga, Asier Elizalde eta Goikoetxea bera aritu ziren prozesu horretan. 2011n atera zituzten zapiak berriz dantzara beteluarrek, eta geroztik ez dute etenik izan. Argi daukate oso garrantzitsua dela ohitura horri eustea, eta, horregatik, Beteluko eskolan bertan ere karrika dantza eta Ingurutxoak irakasten dizkiete. Aitor Goikoetxea aritzen da gazteenei irakasten: "Hasieran, Ingurutxoak bakarrik irakasten hasi ginen, eta zortzikoa ere bai. Gero, orain dela bi edo hiru urte, esan ziguten polita izango zela umeek ere inauterietan egiten dugun beste dantza hori ikastea. Orain,

eskolan inauteriak ospatzen dituzten egunean bi dantzak egiten dituzte ikasleek".

Ingurutxoak, berriz, San Pedro jaien azken egunean dantzaten zen Betelun. "Ezkonduen egunean dantzaten zen, ezkondutakoek dantzaten zutelako berez. Bi minutuan antolatzen zuten dena, entseatu gabe, eta ezin hobe ateratzen zen!", azaldu du Milak. Bikoteka dantzaten den dantza bat baita Ingurutxoak, eta Larraungo, Araizko nahiz Euskal Herriko hainbat herritan dantzaten zen. Hala ere, nahiko modu espontaneo izaten zela azaldu dute Milak eta Maria Angelesek, "garai hartan ez baitzegoen dantzan aritzeko beldurrik, gaur egun bezala!". Leku batzuetan mantendu egiten dute oraindik ere, Iribasen, Uitzin, Areson eta Leitzan esate baterako. Arriben ere herriko festetan dantzaten dute.

### Nafarroako Dantzen Atlas

Ortzadar elkarteak egindako lana ere oso garrantzitsua izan da informazio bilketan. Izan ere, Nafarroako Dantzen Atlas ekinbidea abiatu zuen kultur elkarte horrek, eta [www.dantzatlas.navarchivo.com](http://www.dantzatlas.navarchivo.com) webgunean ikus daiteke egindako lana. Karrika dantzari buruzko informazioa aurki daiteke hor, baita 2018an grabatutako bideo bat ere. Horretarako, hainbat beteluarri eskatu zieten dantza hori buruzko informazioa biltzeko, eta

liburuetan nahiz beste argitalpen batzuetan aurkitutako datuekin osatu zuten azalpena. Honako hauek dira egitasmo horren helburuak, webgunean irakur daitekeenez: "Helburuak anitzak dira eta bat datoz taldeak bere jatorritik izan dituenekin, hots, ikasketa, ikerketa eta kultura tradizionala nahiz folkloreaken hedapena eta ezagutzarekin".

Beteluko karrika dantza eta Ingurutxoak ez ezik —azken horren fitxa bete gabe dago oraindik—, Lekunberriko Bandera dantza ere agertzen da atlasean, bideo eta guzti. Horiez gain, Larraungo hainbat herritako ingurutxoei buruzko informazioa ere badago, besteak beste, Iribaskoa, Uitzikoa, Allikoa eta Gorritikoa. Iribasko Silla dantza ere agertzen da.



Aitor Goikoetxea Araxes eskolako ikasleei Karrika dantza irakasten. Arg: Araxes

**IORTIA** CLINICA DENTAL, HORTZKI NAHA

Juanjo Gaitte Garcia · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LÓREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*

24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

**Martitxonea**  
sagardotegia  
Inaxio Begiristain

Aldatz  
Nafarroa

948604607

Txoootxi!

**JUANLUZENEAN**  
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ



## Mattin marrazkilariak gurean ondutako komikia argitaratu dute

Iñaki Martiarena Otxotorena *Mattin* marrazkilariak Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan egindako lana argitaratu dute: *Aska* izeneko komikia. Udan, hiru aste inguruko egonaldi artistiko bat egin zuen Uitzin eta Oderitzen, eta tarte horretan ondu zuen lana. Emakumea eta ura ditu ardatz istorioak, garbategietan arropak txukuntzen aritzen ziren emakumeak, eta inguruko paisaiak marraztu ditu, besteak beste. Udalbiltzak aurreneko aldiz jarri zuen martxan iaz egitasmo hori, eta bost antzerki obra, *Hamazazpigarrenean aidanez* izeneko literatur bilduma —horren barruan dago

Mattinen komikia— eta bost film labur ardatz dituen *Bost teilatu* izeneko ikus-entzunezkoa sortu dituzte proiektuan parte hartutako 27 artistek. Heldu diren hilabeteetan aurkeztuko dituzte lan horiek gurean. Otsailaren 16an aurkeztu zuten Mattinen lana Arriben, Araizko udaletxean.

Artistak aurkezpenean azaldu zuenez, “tximista bezala” okurritu zitzaion gaia: “Nire asmoa zen emakumeari bere lana aitortzea. Bestalde, oso argi neukan bobaragileei buruz izan zitekeela, garbiletuetan aritzen ziren emakumeei buruz. Aspalditik nuen ideia hori buruan eta bihotzean”. Pantaleona izena jarri dio komikiko protagonistari, hala izena baitzuen haren senitarteko batek. Aita-alaba baten istorioa kontatu du: Araitzera, Betelura eta Larraunera Pantaleona-ren istorioa jakiteko bidaiatzen dute biek autoz, aitaren birramona baitzen Pantaleona. Mattinek adierazi zuen prozesuan gorabeherak izan dituela, eta irakurlea inoiz baino gehiago hartu duela kontuan: “Inoiz baino gehiago sentitu dut irakurlea hor zegoela; liburua hartu eta gozatu egin behar zuela”.

### Euskal kultura bultzatzeko

Bi helburu ditu Geuretik Sortuak egitasmoak, aurkezpenean Lide Hernando Udalbiltzako teknikariak esan zuenez: batetik, euskaraz egindako kultura bultzatzea; eta, bestetik, Euskal Herriaren historia modu kolektibo batean eta orainetik begiratuta kontatzea. Literatura, antzerkia eta zinemagintza izan dira egitasmoaren habeak, eta 26 artistak Euskal Herriko 26 udalerrri edota udalerrri taldetan egin dute egonaldi artistikoa. Hamasei idazle hautatu zituzten, eta horien lanarekin egin dute *Hamazazpigarrenean aidanez*; bi liburuki dira, eta zortzi lan daude bakoitzean. Narrazioa, poesia, ipuin ilustratua nahiz Mattinen komikia bildu dituzte horietan. Larraungo, Beteluko eta Araizko udaletxeetan eros daitezke, baita hainbat liburu dendatan ere.



Iñaki Martiarena 'Mattin' eta Lide Hernando, aurkezpenean. Arg.: Labrit

### EGUTEGIA

- Martxoak 12, Araitzen:** 'Eresia', Oier Zuñiga
- Apirilak 9, Larraunen:** 'Sexberdinak, Tanttaka
- Maiatzak 7, Larraunen:** 'Bost teilatu' filma.
- Maiatzak 28, Larraunen:** 'Trapu Zikinak', Lore More
- Ekainak 17, Betelun:** 'Bidaide', Metrokoadroka
- Abuziak 14, Araitzen:** 'Harriminak', Bonbon Beltz

## Apirilaren 5ean pasatuko da Korrika Larraundik eta Lekunberritik



22. Korrika martxoaren 31n abiatuko da. Amurriotik hasiko dute ibilbidea, eta apirilaren 10ean ailegatu da helmugara: Donostiara. 2.180 kilometro egingo ditu Euskal Herriko zazpi herrialdeetan, Hitzekin lelopean, eta apirilaren 5ean pasatuko da Larraundik eta Lekunberritik, astearte eguerdian. Hain zuzen ere, 12:45 inguruan ailegatuko da lekukoa Aldatzera, handik Arruizera joango da, Arruiztik Mugirora, Mugirotik Lekunberrira, eta Allitik aurrera joango da Irurzunera, tarteko herri guztiak igaro eta gero.

Alabaina, Korrika Euskal Herriaren barrena bidaiatzen hasi baino lehen, hainbat kultur ekitaldi gozatzeko aukera izango da. Izan ere, Korrika kulturala antolatu dute eskualdean, eta honako ekitaldi hauek izango dira: martxoaren 11n, ostiralez, Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa izango da, Lekunberrin. 18:00etan; martxoaren 20an, igandez, ginkana egingo dute Ibarberri eskolako jolastokian, 10:30ean; martxoaren 25ean, ostiralez, Antton Telleriaren bakarriketa izango da Gabarin, 18:30ean; eta apirilaren 5ean, asteartez, *Noraren sekretua* txotxongilo antzezlanaren izenaren da Errazkinen, 17:00etan.

### Baliabide falta

AEK-ko kideen arabera, administrazioei dagokienez euskaltegi eta gau eskolei bideratzen dizkieten baliabideak ez dira nahikoak oraindik ere. Hori hala, Korrikaren helburu garrantzitsuenetako bat da euskalduntze-alfabetatzerako bitartekoak eskuratzea eta euskaltegien zein gau eskolen lana sustatzea. 22. Korrikak biltzen duen dirua, beraz, Euskal Herri osoko gau eskolei eta euskaltegiei laguntzeko erabili nahi dute.

Ekinbide oso jendetsua da Korrika, baina norbanakoaren babesa ere ezinbestekoa da. Hori dela eta, Korrika laguntzailearen figura sortu zuten AEK-ko kideek. 12 euroko ekarpena egiten dute Korrika laguntzaileek, Korrika babes-teko, eta, diru horren truke, pin bat eta txartel bat jasotzen ditu norbanakoak, hainbat abantailaz gozatu ahal izateko. Horrez gain, zozketak egiten dituzte ostiralero. Astero hamar sari inguru zozketatzen dira. Gaur-gaurkoz, 8.400 Korrika laguntzaile ditu ekinbide horrek. Azken Korrikan, 2019. urtean egindakoan, 9.000 izatera heldu ziren, eta aurtengorako, erronka handi bat jarri dute antolatzaileek: 11.000 Korrika laguntzaile izatera heltzea. Oso erraza da Korrika laguntzaile egitea: korrika.eus Korrikaren webgunean sartu, Laguntzaile atalean klikatu eta hor aurkituko duzu beharrezko informazio guztia.

## Itsas trikuak salbatzen

Badira urte batzuk, Kanadako irla batean ari nintzen egun batzuk pasatzen. Goiz eguzkitsua eta epel batean, itsasoan fokak zeudela arrantzan hondartzara hurbildu nintzen haiek ikustera. Marea oso behean zegoen eta horretaz baliatzen omen ziren fokak hondoko gutziak erraz harrapatu eta jateko. Hondartza luzea zen eta behin fokak ikusita, segitu nuen nire bidea itsasertzean. Halako batean itsas triku zapala, “ondar dolarra” bertakoen hizkuntzan, aurkitu nuen. Bizirik zegoen baina eguzkiak jotzen zion eta laster lehortu eta hil egingo zen. Hartu eta indarrez itsasora bueltatu nuen. Gogoratu nuen orduan Jorge Bucayren ipuin bat. Bertan, gizon batek ere hondartzan itsas izarrak aurkitu zituen marea behean. Asko eta asko zeuden airepean eta itsasora bueltatzen zituen bizirik irauten laguntzeko. Pasatzen zebilen beste batek galdetu zion ea zertarako egiten zuen, ez baitzuten guztiak salbatuko. Guztiak ez, gehienak ez eta ere, baina salbatuko dudak bakoitzarentzat garrantzitsua izango da nire keinua.

Nik ere, ezin dut Natura osoa salbatu, gizarte osoa lagundu, inondik ere. Nire indarrak ez dira horretarako nahiko. Baina, era konstruktibo batean egiten dudak keinu bakoitzak laguntzen du mundu hobe bat egiten. Horretarako, beharrezko dut nitaz eta bizi naizen mundu honi buruzko kontzientzian etengabe aurrera egitea.



CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS  
Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

Erronka 19,  
Lekunberri  
www.martioak.com  
679 938 016

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA  
URZUBI S.A.  
Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20  
Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

## Santa Ageda bezperan, kantari

Aspalditik da egun berezia Santa Ageda bezpera Euskal Herriko txoko askotan, eta otsailaren 4an jende ugari ateratzen da kalera koplak kantatzera. Gure inguruko herri batzuetan ere entzun zitekeen makila hotsa; izan ere, Errazkinen eta Lekunberrin, besteak beste, koplak kantatzen aritu ziren herritarrek.

Beteluko eskolaren kasuan, Araizko, Beteluko, Lezaeta eta Errazkingo umeak biltzen dira bertan. Urte asko dira eskolak, zonako Euskaraz Bizi taldea, Aralar musika eskola eta ospatuko den herriko gurasoekin elkarlanean, herri guztien txanda eta parte hartzea bultzatuz, bakoitzari merezi duen protagonismoa emanez, Santa Ageda bezperako koplak kantatzearen antolaketaren ardura hartzen duela.

Duela bi ikasturte, Lezaeta eta Azpirotzen ospatu zen lehen aldiz, eta iaz, pandemiak behartuta, eskolatik abiatu eta Betelun zehar taldeka kantatuz ibili ziren. Aurten, berriz, Errazkinen ospatu dute. DBH2ko ikasleek gonbidapen txartela sortu eta herrietan banatzearen ardura hartu zuten. Eskolan, goizean, denak jolastokian elkartu eta entseatu eta gero, 16:30 aldera Errazkinen elkartu ziren, Aitor Irastortza eta Oskar Estanga bertsolariak, eskolako bi irakasle, bi trikitilari (Idoia Garmendia eta Aiara Arraztio), Mirentxu Eskamendi guraso panderojole lanetan, eta guraso gazte mordoxka beren umetxoekin, eskolako adin desberdinetako ikasleen artean. Herritarrek proposatutako kokaguneetan elkarrengana bildu eta koplak abestuz eta bertsolarien bertso dotoreak entzunez ibili ziren. Bukaeran, herriko elkarteko atekazabalduek eta askari ederra eskaini zieten. Ondoren, bi trikitilariak, haurrez inguratuta zeudela, musika jotzeari ekin zioten eta kantuan jarri gintuzten giro ezin hobea sortuz. Eskerrik asko bertsolariei, musikariei eta Errazkingo herritarrei!



## LEKUNBERRI



## Martillo Txikiko ikasleak, musikari

Lekunberriko Martillo Txiki perkusio eskolako ikasleek hiru kontzertu zoragarri eman dituzte, eta azken hilabete hauetan landutakoa eta ikasitakoa erakusteko aukera paregabea izan dute. Kantinan jo zuten otsailaren 23an, Latasa-Imotzera joan ziren otsailaren 24an, eta otsailaren 25ean, berriz, Plazaola partzuergoan izan ziren. Heldu diren hilabeteetan ikasten segitzeko gogoz daude!

## Lekunberriko Legua egingen dute martxoaren 27an

Bi urtez bertan behera geratu eta gero, Lekunberriko Leguaren 32. aldia egingen dute martxoaren 27an. Aurten, gainera, ibilbide berria izanen du lasterketak: orain arte, Lekunberritik abiatu eta Azpirozko portuan behera joaten ziren korrikalariak, eta 6 kilometro inguru izaten ziren denera; orain, Lekunberrin bertan egingen dute lasterketa, eta 4 kilometro eta 700 metro inguruko bi buelta izanen dira. Aukeran, buelta bat edo bi eman ahalko dira, bikoteka edo bakarka. Ibilbidea luzatu izanaren arrazoia da azken urteotan gero eta korrikalari gutxiagok ematen zutelaz izena lasterketan; antolatzaileek uste dute "nahiko motza" zelako gertatzen zela hori, eta korrikalariak nahiago zutelaz beste lasterketaren batean parte hartu. Ibilbidea luzatuta, korrikalari gehiagok parte hartzea espero dute.

Arruizko Txikitoaren omenez egin izan da Lekunberriko Legua orain arte, hark egindako marka onagatik: 1959an 18 minutu eta 57 segundoan egin zuen ibilbide hori, garaiko markarik onena. Orain, ibilbidea aldatuko duten arren, Lekunberriko Legua berdin-berdin egingo dute haren omenez, hala mantenduko dute, antolatzaileek azaldu dutenaren arabera.



## Ttutturre elkarteak Toloñora egingen du irteera



Hilero bezala, Ttutturre kirol elkarteak mendi irteera bat antolatu du martxorako. Oraingoan, Toloñora joanen dira martxoaren 27an. Hain zuzen, Herrerako portutik Toloñora egingen dute ibilaldia, eta handik Labastidara. Lekunberriko plazatik abiatuko dira autobusez, eta bazkaria ere izanen dute bukatzen duten ondoko jatetxe batean. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi ttutturrekirolelkartea@gmail.com helbidera.

## Beti Kozkorren eskutik, bi lagunentzako bazkaria Martitxonean



Beti Kozkor zozketak egiten ari da hilero bazkideen artean, eta denboraldi osoan arituko da hala. Azken zozketan, Joseba Grande 3. mailako jokalaria Ayerdi Oreja fisioterapia eta osteopatía zentrorako bi saio irabazi zituen. Hilabete honetan, berriz, Aldazko Martitxonea sagardotegian bi lagunentzako bazkari bat zozketatuko dute. Egon hadi hurrengo zozketei!

# Kolorez blaitutako inauteriak Lekunberrin

*laz ez zen posible izan, baina aurten bai: Lekunberriko kaleak mozorroz eta festaz bete ziren otsailaren 19an. Hamaietako eder batekin hasi zuten eguna, Toki Alai sagardotegian. Ondoren, mozorro desfilea egin zuten, txarangak girotuta. Herri bazkari autogestionatua izan zuten trinketean, eta, 18:30ean, Irurtzungo zanpantzarrek eta pertsonaiek hartu zituzten kaleak. Bukatzeko, Attezarko erre zuten, eta dantza herrikoiak egin zituzten. Betelu eta Gorritiren txanda da martxoan, 5ean ospatuko baitituzte.*



Arg: Juan Antonio Garaikoetxea



Haur, gazte nahiz helduak mozorrotu ziren. Arg: JC. Cordovilla / Diario de Navarra.



Arg: Ilargi taberna



Gimnastak ere izan ziren! Arg: JC. Cordovilla / Diario de Navarra.



Arg: Ilargi taberna



Arg: JC. Cordovilla / Diario de Navarra.



Lekunberriko kale nagusia. Arg: Juan Antonio Garaikoetxea

**M. Angeles Urrizalki**  
**iragarkiak, berriak, eskelak...**  
**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**  
 948513056  
 699179437

**Atabal**  
 ahindagia  
 Era askotako ogiak eta gozoak  
 Etxez etxe banatuko dugu  
 Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE HARATEGIA**  
**BERTAKO HARAGIA**  
 Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.  
 Antigua kalea 7  
 31890 BETELU  
 948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**TAXILON**  
 Lontxo Otamendi Artola  
 661 202 249  
 (9 plaza)  
 E-posta: istamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

**SOTIL GARAJEA**  
 BETELU  
 948 513 007  
 sotilgarajea@gmail.com

# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Motzondoa

*Santa Ageda bezperan gogotsu astinduko zeen nonbatte makillek. Lurre esnatzea zen asmoa; lurre, hartza ta kukue. Aurten ez tuu jakingo Arantzazue kukue noiz allaatu den, betiko ixildu baita hango ezkille. Ta gu eztakit esnatuko ote gean sekule; nature bai, nature hasie da nagik ateatzen.*

*Ziklikoak omen, eta ziklo berri baten atarin gaude. Ziklikoak nabarmen emakumeok, eta emakumetan emakumena den ilargi amandrea. Behin da berriz itte ziklo bea, ea beste begietzuekin beitzen ote diun, baño ezta errea entenditzen. Oain gora, oain beira; oain haunditu, geo ttikitu; oain aparte, oain bertan, baño beti toki beretik atea ta sartu. Mareak gora ta mareak beira, ezoin mareatzeko moukoa da gure amandrea.*

*Ikusi eta ikasi itte omen da. Eunero dauku ilargiei beitzeko aukera, baño ikasi ote duu ilargiek esan nahi diun hoi dena ikusten?*

*Ta ikasteaz ai geala, zenbat ikasten den kanpo-lanetan, aizue! Urritzek zerueño allaatzeako moztu ta haikin hesik itten; loreak eta frutarbolak noiz ta nola muarratu o lepatu. Ahal bada izardie muitezako ta beti puje berin gainetik; suteako eurrek izango deenak markatu ta bota; ilargie goran dauean, o ilgoran, o ilberan izaten da hoi? Bueno, eztakit, ingurukoak hasten deenen ittea izaten da trukoik onena ilargiekin mareatzen geanontzako.*

*Oain dela garaie ta bota bintzet; geo geokoak. Arbola o landare bati aar bat moztea gui zauriet ittea bezalakoa omen da. Ta guk bezalaxe, bizirautea denez landarean erronka haundina, garai hontan moztu, muarratu o kime-tuta re, indarberittuta haziko dee. Esate bateako, moztu lasai lizarra ondo ondotik mozkondo sendoat geatu arte, soildutako burue emanda re, temati haziko zaizkio arba berrik datorren urteako.*

*Motzondoa aittu nun aurreneko aldin saardo kupelan aurrean daun pertsona bat etorri zitzaiten goora: motza ta kupela borobil-borobilekin, saardo kupela ispilue balitz bezala ta bea ispilun islatzen den kupel motzondoa. Kupela borobile, kupeletik ai denan lepondo bezalaxe. Puje berrik ernetzeko garai da hau, baño baita motzondo ta kupel-ondoan garaie re. Astindu fuerte makillek ta txooooootx-ak, ea hurrungo zikloak erne harrapatzen gattun!*



Bete ezazu  
despentsa  
urte guztirako



**martxoak 10 - 30**

**Nafar hegoaldeko uzta  
eskutik eskura**

# Oinak lurrean



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



**errigora.eus**



# Ongizatearen eta bizi kalitatearen garrantziaz

*'Lekunberriko Ongizate Plan Estrategikoa' ondu dute Lekunberri Suspertu egitasmoaren barruan egindako prozesu parte hartzailearen fruitu gisa. Herritarren bizi kalitatea hobetzea izan dute jomugan, eta, horretarako, hainbat proiektu abiaraztea aurreikusi dute. Dagoeneko batzuk martxan daude: 'mindfulness' tailerra eta Lekunberri heldu direnei integrazten laguntzeko ekintzak.*

Lekunberriko Udalak herritarren ongizatea hobetzea helburu zuen egitasmo bat abiatu zuen 2021eko maiatzean: Lekunberri Suspertu. Urtebeteko prozesu parte hartzailearen ondoren, Lekunberriko Ongizate Plan Estrategikoa ondu dute, eta herritarrek dagoeneko eskura daukate dokumentu horretan xehatutako informazio guztia, euskarri digitalean nahiz paperean, euskaraz eta gaztelaniaz. Lekunberriko Udalak sustatu

du, El Buen Vivir elkartearen laguntza teknikoarekin eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketarekin.

Pandemiak agerian utzi du zer garrantzitsua den norbanakoen ongizatea zaintzea eta horri denbora eskaintzea. Horretaz ohartuta, 2020 urteko ekainean, udala eta El Buen Vivir elkartearen, etabiekalabiekikusi zuten ongizatea sustatzea ezinbestekoa zela bizi kalitatea hobetzeko eta herritarren ikuspegi berri iza-

teko. Hala, prozesu parte hartzaile bat abiatzea pentsatu zuten, horri guztiari erantzuteko asmoz. 2021eko otsailean, Nafarroako Gobernuaren babesa ere lortu zuen ekinbideak, eta martxan jartzea erabaki zuten. Ekainean aurkeztu zuten proiektua jendaurrean, udan jarduerak diseinatu zituzten, eta irailean bertan abiatu zituzten tailerrak. Gorka Azpiroz Lekunberriko alkateak koordinatu du prozesua udaletik, eta Mikel Irujo Gazteria, Berdintasun eta Nazioarteko Lankidetzaren eta Leire Iriarte El Buen Vivir elkartearen zuzendariaren laguntza eta babesa ere ezinbestekoa izan da proiektua aurrera ateratzeko eta behar bezala garatzeko. "Ongizateaz esplizituki hitz egitea kosta egiten zaigu oraindik, eta askotan hazkunde ekonomikoarekin lotzen dugu, bizi osoa izateko funtsezkoak diren alderdiak alde batera utzita", nabarmendu zuen Iriartek.

Irailean ere, ongizateari buruzko inkesta bat egin zuten. 42 galderaz osatuta zegoen, eta ongizate subjektiboari nahiz alderdi soziodemografikoari buruzkoak ziren. Hemeretzi lagunek erantzun zuten galdetegi hori, eta nahiz eta parte hartze hori ez den nahikoa biztanleria osoaren egoera jakiteko eta aintzat hartzeko, zenbait adierazleren erakusleho bada: balorazio orokorra 6,4 puntukoa izan zen 10etik. Puntuaziorik onenak lortu zituzten gaiak ongizate pertsonala eta enplegua, ekonomia eta etxebizitza dira, eta gutxien gober-

Argazki oina: Saioretako bat, Lekunberriko udaletxean. Arg: Labrit



nantza eta etengabeko ikaskuntza, beste leku batzuetan lortutako emaitzen oso antzekoa.

Hiru tailer parte hartzaile egin zituzten iraila eta urria bitartean. Tailer horietan, proiektuaren berri emateaz gain eta bakoitzak esateaz gain zer etorkizun desio zuten, ongizate pertsonalari buruzko 20 minutu inguruko prestakuntza bat eskaini zitzaion joan zirenei. Honako hauek izan ziren landutako gai batzuk: botere pertsonala, mindfulness, autoezagutza, emozioen kudeaketa, ohitura osasungarriak, uste eta balio pertsonalak identifikatzea eta erresilientzia.

## Zazpi proiektu

Ongizatea aztertzeko, zazpi printzipio hartu dituzte kontuan Lekunberri Suspertu egitasmoan: osasuna sustatzea eta bizimodu osasungarriak garatzea; osasun mentala zaintzea eta pertsonen potentziala bultzatzea; beste pertsona batzuekin modu positiboan konektatzea; nahi ez den bakardadea saihestea; besteei ema-

tea eta laguntzea; haurtzaroan zorientasunerako hezkuntza sustatzea eta bizi osoan ikastea; eta kalitatezko enplegu duina eta kalitatezkoa izatea. Horiez gain, baina ez dituzte aisialdia eta kultura ahaztu, noski, eta natura ere erdigunean jarri nahi izan dute.

Printzipio horiek egingarriak izan daitezkeen eta herritarren ongizatea bermatua egon dadin, hainbat proiektu abiatu dituzte. Udalak lanari ekin dio dagoeneko: mindfulness tailer bat abiatu du, eta etorri berriei ongietorria emateko eta herrian integrazteko ekintzak diseinatu ditu. Halaber, beste proiektu batzuk abiatzea ere aurreikusi dute. "Proposamen horiek gauzatzeko borondatea eta erabakitasuna dugu, eta dagoeneko hasi gara lanean", nabarmendu du Azpirozek. Honako hauek dira landutako dituzten esparru nagusiak: gorputza zaintzea, osasun mentala zaintzea, harremanak, hezkuntza eta ikaskuntza, behar materialak, aisia eta kultura, eta ingurumena.

**Pandemiak agerian utzi du zer garrantzitsua den norbanakoen ongizatea zaintzea eta horri denbora eskaintzea**



**ARGI izan**

eredu **Distiratsua**  
modelo **D**iverso **D**inámico  
eleanitza  
multilingüe

Escuela pública navarra en euskera  
Nafar eskola publikoa euskaraz

**NIZE**  
Navarra Ikastetxeak

nize-d.com

**Antzonia**  
BASERIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Urtegi (Araitx)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
SALMENTA ETA KONPONIZIA

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**MALLOAK**  
ARTZAI GAZTAK

Dono Munkinea, GAITZA, Nafara  
Tel. 948 512 057 • Fax: 948 511 057  
Nafara, 100 • 31010 Malloak

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

## LITERATUR GELDIALDIK 2022

Lekunberriko saiorako (Herriak ez du barkatuko liburua, Irati Goikoetxea) liburua irakurri nahi dutenek, ale bat izanen dute Euskara Zerbitzuan eta beste bat Mitxausean.



# LITERATURA -GERALDIK 2022



## SOLASALDIK

Otsailak 19 | 11:00 | ETXALEKU (Udaletxea)  
Aiora Jaka (Nirliit)  
Martxoak 10 | 18:00 | IRURTZUN (Pikuxar)  
Aiora Jaka (Nirliit)  
Martxoak 26 | 11:00 | LESA (Arrano)  
Aiora Jaka (Nirliit)  
Apirilak 20 | 18:00 | LARRAINTZAR (Benta)  
Irati Goikoetxea (Herriak ez du barkatuko)  
Apirilak 21 | 18:00 | IRURTZUN (Pikuxar)  
Nerea Lolola (Epizentroa)  
Apirilak 22 | 18:00 | BERA (Liburutegia)  
Mikel Antza (Arroz urez)  
Apirilak 28 | 17:30 | ARANTZA (Liburutegia)  
Nerea Lolola (Epizentroa)  
Apirilak 28 | 18:30 | LEKUNBERRI (Liburutegia)  
Irati Goikoetxea (Herriak ez du barkatuko)  
Apirilak 28 | 19:00 | ERRATZU (Lixutegia)  
Aiora Jaka (Nirliit)

## LANTEGIK

Ibon Egaña (Nola iruzkindu liburu bat?)  
Apirilak 27 | 18:30 | LEITZA (Liburutegia)  
Urriak 19 | 18:30 | ELIZONDO (Arizkunenea)

## IRAKURRALDI MUSIKATUA

Apirilak 23 | 19:00 | LESA (Harriondoa / Txokobiko aretoa)  
Aritz Galarraga eta Ibon RG (Gogoan dut)

## AGENDA

## MARTXOA

4 - Martxoak 8 hizpide hitzaldia, 19:00etan, Printzan.

5 - Beteluko eta Gorritiko inauteriak.

11 - Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa, 18:00etan, Lekunberrin.

12 - Eresia antzerki emanaldia, Oier Zuñiga artistaren ikuskizuna; Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan, Araitzen.

13 - Bigarren liburu azoka, Lekunberriko frontoiko plazan, 10:00etatik 15:00etara.

19 - Kale eskalada Lekunberrin, Printzan hasita, 11:00etan.

20 - Ginkana Ibarberri eskolako jolastokian, 10:30ean.

25 - Antton Telleriaren bakarriketa, 18:30ean, Gabarin.

26 - Pleura eta Kurkuma taldeen kontzertua, Printzan.

27 - Lekunberriko Legua, 12:30ean. Izen emateak: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)

27 - Tutturre kirol elkartearen irteera Toloñora.

EMAKUMEEN  
NAZIOARTEKO EGUNA

8 - Manifestazioa, 19:00etan, Larraungo Udaletxetik Lekunberriko plazara.

11 - 14-18 urte bitarteko nerabeekin *Intervención socioeducativa desde la perspectiva de género* tailerra, Gabarin.

12 - Emakumeen afaria, Euskalduna tabernan. Langabetu eta pentsionistek dagokien udalarekin jarri beharko dute harremanetan txartela erosteko (Larraungo edo Lekunberri). Gainerakoek, Mitxausean.

15 - Pintxo dastaketa, Kattagorri elkartearen, 20:00etan.

20 - Zineforuma, Gabarin, 18:00etan. 16 urtetik gorakoentzat.

27 - Berdintasunaren aldeko II. escape room-a, egun osoan. 14-18 urte bitartekoentzat. Taldeka eman beharko da izena.

**ASEGURU AHOLKULARIAK**  
Zure ondarea eta segurtasun babesteko modu bakarra behar bezela aseguraturik egotea da

**aseguru gintza XXI**

► [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)  
► 943 65 22 20  
► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

**Construcciones Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK  
IGELTSERITZA  
FATXADAK  
TEILATUAK

► Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540  
► [construccionesganarbe@gmail.com](mailto:construccionesganarbe@gmail.com) 636 827 846

**Lagunasesoria S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**ekin**  
rotulacion

948 85 32 79

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
[carpinteria@carpinteriazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriazpiroz.com)

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Ataia

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri

**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



# **Zatoz Mailoperen Batzar orokorrera!**

**Orain arte egindakoak eta  
aurrerantzean eginen  
ditugunak Landuko ditugu.**

**Baduzu ideiarik?**

**APIRILAREN 1EAN  
IZANEN DA, 19:00ETAN,  
LARRAUNGO UDALETXEKO  
GABARI GUNE IREKIAN.**

Anaitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

## **MAILOPE**